

Prentsa oharra

Nota de prensa



Trafiko istripuak %8,1 jaitsi ziren 2019an

Istripu-kopuruaren erdia biktimarik gabekoak izan ziren, eta autoak eta motozikletak protagonista dira hirian dauden istripuen bi herenetan

1.565 trafiko-istripu gertatu ziren Donostian 2019an, hau da, ia baino %8,1 gutxiago, eta 2012an gertatu ziren istripuen antzeko kopurua. Istripu-kopuruaren erdia biktimarik gabekoak izan ziren, eta aldiz, lau pertsona hil ziren, 2018an baino hiru gehiago.

Mugikortasun eta Garraio zinegotzi Pilar Aranak eta Hiri-Seguratasun eta Herri-Babeseko zinegotzi Martin Ibabek 2019an gertatutako istripu-kopuruaren datuak ezagutzera eman dituzte gaur goizean. Aurkeztutako estatistikan hiri barruan gertatutako istripuak kontuan hartzen dira.

2.721 ibilgailu egon ziren inplikaturata 1.565 istripu horietan, hau da, ia baino %14 gehiago, noiz eta 2.371 ibilgailu inplikaturata egon ziren.

MPIak estatistikaren barruan

Hiri-Seguratasun eta Herri-Babeseko zinegotzi Martin Ibabek azpimarratu du, istripuen %52,5 gehienbat autoen, baina baita furgoneten, kamioien eta autobusen eraginez gertatu direla. Eta estatistikaren arabera, hurrengoak motozikletak eragindako istripuak izan dira (%26,7).

Urtero ezagutzera ematen den estatistika honetan berrikuntza bat dago. Hain zuzen ere, lehenbiziko aldiz, Mugikortasun Pertsonaleko Ibilgailuak kontuan hartu dira, alegia, patinete elektrikoak. Horren harian, Ibabek honakoa esan du: “2019aren erditik aurrera Udaltzaingoaren Atestatuen Unitateak ibilgailu horiek dituzten istripuak kontatzen hasi da. Eta datuei begiratzen badiegu, ibilgailu horiek hirian egon diren istripuen %0,6an izan dira protagonista. Eta istripu horietan, guztira, 9 patinete egon dira inplikatuarak”.

Istripu-kopuruaren erdia biktimarik gabekoak

Donostiako 2019ko istripuen estatistikaren arabera, istripu-kopuruaren erdia biktimarik gabekoak izan diren (786), eta aldiz, beste erdian (779), zauritutako pertsona-kopurua ia zokoaren oso antzekoa izan da. Zehatzago esanda, 915 pertsona zaurituta gertatu ziren – 867 arinak eta 48 larriak -; 2018an berriz, 918 – 878 arinak eta 40 larriak -.

Bestalde, lau pertsona hil ziren 2019an beste hainbeste trafiko istriputan, hau da, ia baino hiru gehiago. Hildako pertsonak bi motor gidariak, auto baten gidaria eta oinezko bat izan ziren.

Harrapatzeak %7,3 jaitsi dira

Mugikortasun eta Garraio zinegotzi Pilar Aranak, halaber, estatistikaren beste datu garrantzitsu bat azpimarratu du, hain zuzen ere, bere departamentuak zein Hiri-Seguratasun eta Herri-Babeseko departamentuak garrantzi handia ematen dioten datua: harrapatzeak.

Prentsa oharra

Nota de prensa

Donostian 89 harrapatze gertatu ziren 2019an, hau da, iaz baino %7,3 gutxiago. Harrapatze gehienetan autoak egon ziren inplikatuak (59), eta adierazgarria da, harrapatzetan inplikaturako bizikleta-kopurua asko gutxitu dela: 2018an 54 bizikleta egon ziren inplikatuak, eta 2019an, aldiz, 8.

Hirian gertatutako harrapatzetan hildako bat egon zen, 82 pertsonak zauri-arinak izan zituzten (75 oinezko, 4 gidari, 2 txirrindulari eta bidaiari bat) eta 18k zauri-larriak (16 oinezko eta 2 gidari).

Horiek horrela, Pilar Aranak honakoa azpimarratu du: “Oso garrantzitsua da gidariei zein oinezkoei kontzientziaztea arauak bete ditzaten. Egia da harrapatzeak gutxitu direla, baina gutxiago izatea nahi dugu. Eta horretarako lanean jarraitzen dugu, hiritarren kontzientziazioa hobetzeko”.

Era berean, adierazi du, Udalak apustu argia egiten jarraitzen duela, hain zuzen ere, oinezkoentzako hiriaren aldeko apustua. Eta hirian oinezkoekin batera protagonista izan behar dute bizikletek eta garraio publikoak, dbus eta topoa eredu.

Istripuen historikoa:

Urtea	Istripuak	Hildakoak
2010	1.657	4
2011	1.642	5
2012	1.571	1
2013	1.530	1
2014	1.652	1
2015	1.637	5
2016	1.751	2
2017	1.783	2
2018	1.702	1
2019	1.565	4